Arabako Ibilbide Berdeen Sarea
Red de Itinerarios Verdes de Álava

# VASCO-NAVARRO: Vitoria-Gasteiz-Laminoriako tunela

## SARBIDEAK









Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

CUADRILLA DE VITORIA-GASTEIZ
VITORIA-GASTEIZKO ESKUALDEA

CUADRILLA DE SALVATIERRA
AGURAINGO ESKUALDEA

112 SOS DEIAK

**Aguraingo turismo bulegoa:**

945 312 535

**Vitoria-Gasteizko turismo bulegoa:**

945 161 598

*Informazioa eta trackak eskuratzeko:*
***www.alava.net***

# IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA: Vitoria-Gasteiz-Laminoriako tunela

**XIX. mendearen inguruan, Bilbo Vitoria-Gasteizekin lotzeko bide estuko trenbide bat eraikitzeko proiektua bultzatu zuten, Durangotik pasatuko zena. Juan Jose eta Joaquin Herranek landu zuten egitasmo hau, aurrera egiteko zailtasun handiak gainditu behar izan zituena eta bi tartetan burutu zena; Vitoria-Gasteizetik Mekoaldera (1919) eta Arabako hirigunetik Lizarrara (1927), alegia. 1967an trenbidearen ibilera amaitutzat eman zenetik bertako azpiegitura gehiena eraitsiz joan dira eta paseatzeko eta disfrutatzeko berreskuratua izan da.**



**0 km.- VITORIA-GASTEIZ.** Vasco-Navarro ibilbide berdearen bidegune honetara heltzeko Oreitiasoloko industrialdera hurbilduko gara Vitoria-Gasteizko HEra. Heraclio Fournier kalean bukatzen da bidegorria. Bidetik jarraituko dugu eta errepidea pasabide berritik zeharkatuko dugu, Olaranbeko kirol-instlazioekin lotzeko. Ezekerraldera joko dugu eta berehala ibilbide berdearen panelarekin topo egingo dugu.

**3,2 km.- OTAZUKO GELTOKIA.** Ibilbideak Arabako hiriburuaren joan-etorriak atzean uzten ditu eta Lautadako landa-giroan murgiltzen da interpretazio panelez horniturik dagoen bide batetik leunki igotzen dena. Otazu, eta Aberasturi hiriguneen ondotik pasatuz aterpetxe edota etxebizitza bihurtutako geltoki zaharrak aurkituko ditugu eta ondoren GR 38arekin topo egingo dugu, Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidearekin, alegia. Puntu honetan abiatzen da 1951. urtean Estibalizko monje benediktarrek hala eskaturik eraiki zuten trenbidearen adarra, Donejakue bidea gurutzatuz Andra Mariaren santutegiraino heltzen dena.

**8 km.- ANDOLLUKO GELTOKIA.** Uribarri Jauregirantz jarraituko dugu,Tronkoniz atzean utzi eta Gasteizko Mendi Garaien ikuspegiaz gosatzen dugun bitartean. Jarraian Erentxunera hurbilduko gaituen tunela zeharkatuko dugu. Handik gutxira, Gaunatik oso gertu oraingoan, ibilbidea baltsa batzuen parean doa GR 25arekin -Arabako Lautadaren Birarekin-batera. Rotaldeko transformadore-azpiestazioa izan zena pasatu eta gero aldapa gogorrago bat igoz Laminoriako tunelerantz abiatzen gara, ibilbidea amaitutzat emanik.

**19,3 km.- LAMINORIAKO TUNELA.** Orain bi aukera ditugu, atzera joan eta bide beretik Vitoria-Gasteizera itzuli edo Maezturantz igotzen den desbiderapena hartu, gero Gereñuko mendatetik Lizarraraino heltzeko.

## MIDE

| | | | | Gogortasuna | Orientazioa | Desplazamendua | Esfortzua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 19,3 Km (+2,8 Km) | 200 m (+50 m) | 4 h / 2 h | %100 | 1 Severidad | 1 Orientación | 1 Desplazamiento | 3 Esfuerzo |

MIDE ibilbideen gogortasun teknikoa zein fisikoa baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):

- Ingurune naturalaren gogortasuna
- Ibilbidean orientatzeko zailtasuna
- Desplazamenduaren zailtasuna
- Behar den ahalegin maila

## PROFILA



## IBILBIDE-ORRIA: Vitoria-Gasteiz-Laminoriako tunela

### BUKAERA

| Km | |
|---|---|
| 19,3 | Laminoriako Tunela |
| 18,3 | Hurrengo etaparekin lotura |
| 17,5 | Desbiderapena GR 25 ezk. |
| 16,7 | Uribarri Jauregiko geltokia |
| 15,1 | Ur-putzua |
| 14,2 | Bidegurutze Gauna ezk. |
| 13,7 | GR 25 |
| 12,1 | Erentxungo geltokia |
| 12 | Bidegurutzea A-3112 |
| 9,2 | Bidebanatze Trokoniz geralekua |
| 9,1 | Bidegurutze |
| 8,1 | Desbiderapena Estibaliz ezk. |
| 8 | Andolluko geltokia. GR 38 Pasabidea A-132aren azpian |
| 5,7 | Aberasturiko geltokia |
| 3,5 | El Salvador hilerria |
| 3,2 | Otazuko geltokia Pasabidea A-3104 gainetik |
| 1,5 | Olaranbeko pasabidea |
| 0 | VITORIA-GASTEIZ |

### HASIERA


Baltsa
Olaranbeko pasabidea
Estibaliz
Tunela

## IBILTARIAREN DEKALOGOA

1.- Ibilbidearen plangintza egin aldez aurretik
2.- Ahal izanez gero, lagunekin joan
3.- Ibilbidearen berri eman ingurukoei
4.- Arropa egokia eraman
5.- Edari eta janari nahikoa eraman
6.- Ez ahaztu eguzkitako krema
7.- Landareak eta animaliak errespetatu
8.- Ez irten markatutako ibilbideetatik
9.- Ingurunea zaindu
10.- Larrialdi-egoeran 112 telefonora deitu